

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Terra Sigillata

Joxe Austin Arrieta

TXALAPARTA

444 orrialde

20 euro

Oroimen histori-koaren gar biziak

Hitza bahiturik dagoen garaian, hitzarmenaren orde berriro ere armen hitza bultzatzea nahi dela dirudien honetan, geure oroimen historikoa berpizteko beharra sentitu du Joxe Austin Arrieta. Hortik dator *Terra Sigillata* liburua. Historia beti irabazleek idazten badute, idaztea bera garaipen seinaleztat du egileak. Lan horretan, euskaldunon historiaren nondik norakok mugarrizten ahalegindu da Arrieta. Aurreneko ehun orrialdeetan literatura filosofiaren zerbitzura jarri du, eta ondorengo hirurehunetan grina osoz azaldu du Yukatan –“Ez dut ulertzen” jatorrizkoen hizkuntzan– inguru-

ruan Hernan Cortes eta enparauek aurrera eramandako sarraskiak, baita geurean 1936ko gerra garaian gertatuak eta orain arteko hilketak eta torturak. ■



Biraoak.

Nafarroan bilduak

Patxi Salaberri Zaratiegi,
Juan Jose Zubiri Lujanbio

PAMIELA

344 orrialde / 21,50 euro

Gure euskara garbiak dituen birao eta madarikazioak

Apaizen eraginez-edo, auskalo, zenbait urtean zabalduta izan da honako kontu irrigarria geurean: alegia, euskara hizkuntza “garbia” genuela. Ez zuela erdarazko mintzairek zituzten hitz zatarretatik bakararra ere. Baina noski, euskara hizkuntza bizia izaki –eta orain baino gehiago, lehen– izan ditu –eta ditu– ezagunari eta lagun hurkoari kalteren bat opa egiteko esaldi ugari. Horren berri eman digute Juan Jose Zubiri Lujanbio eta Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain nafarrek elkarren artean osatu duten *Biraoak. Nafarroan bilduak* izenburuko ikerketan. Lagun arteko hizkera hori karriketan gero eta gehiago erabiltzeko bildu dituzte Nafarroan erabiltzen diren biraoak, hala nola irain edo madarikazio horiek herriz herri dituzten indargarriak. ■

Neskato baten diamantezko eguna

Pako Aristik hamar urte inguruko irakurleei begira idatzi du *Miren nunca mais!*. Kontakizuneko protagonista, Miren izeneko neskato euskalduna, bere gurasoekin egun batzuk pasatzera doa Galiziako Santiagora. Galtzeko joera du, jaio zenean ere galdu egin zen –orduan errua berea izan ez bazen ere– eta gurasoak beti ari zaizkio esaten kontuz ibiltzeko eta galduz gero nora itzuli behar duen gogoan izateko. Alferrik, baina. Izan ere, Mirenen aitona esana dio inoiz dibertimendurik aurkitzen ez badu, sortzeko berak. Eta horretan ahalegintzen da neskata. Baita Santiagorako bidean ere, eta nola ez, Santiagon bertan. Galduko da, baina galduta dabilela oso jende interesgarria aurkituko du, ikara dezente pasatzea egokitzen bazaio ere. ■



Miren nunca mais!

Pako Aristi

ELKAR

132 orrialde

10,50 euro

Medikuntza museoak gai

Felip Cid, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Medikuntzaren Historiako katedraduna eta Museu d'Història de Medicina de Catalunyaaren sortzailea, kexu da. Gizakiok sendatzeko historian zehar erabili diren tresna eta tramankuluei medikuntzaren historiografiak arreta gutxi jarri diola uste du. Kezka horrek bultzaturik idatzi zuen zientziaren gaineko entziklopedia erraldoia, baita medikuntza gai zuten bi liburuki ere. *Museología médica. Aspectos teóricos y cuestiones prácticas* izena duten bi liburutan, berriaz, hogeitau urte baino gehiagotan museologo moduan egin duen lanaren laburpena eskaini du. Munduan han-hemen izan diren eta diren medikuntza museoak kontuan hartuta, historian zehar medikuntzarekin lotutako idazkien, tresnen, altzarien eta bestelako ondareen berri ematen du lan honek. ■



Museología médica (1)

Felipe Cid

MEDIKUNTZA ETA
ZIENTZIA HISTORIAREN
EUSKAL MUSEOA

354 orrialde



Mujeres lesbianas en Euskadi

**Inmaculada
Mujika Flores**

ARARTEKO
434 orrialde

Lesbiar maitasunak gure artean duen egoera

Ararteko erakundeari funtsezkoa iruditu zitzaion EAEn lesbianek bizi duten benetako egoera ikertuko zuen lan bat egitea. Horixe da Inmaculada Mujika Floresek osatutako *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi* ikerketak eskaintzen diguna. Gure artean bizi diren lesbianen gaineko isiltasunaren atzean zer gordetzen den adierazten du, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren 20 urtetik 62ra bitarte dituzten hemezortzi emakume lesbianein egin dizkien elkarrizketa sakon bidez. Ezberdinak dira maila ekonomikoan —langabe, batzuk; langile xehe, beste

batzuk; bat enpresaria da...—, baita bere aukera sexuala aurrera eramateko duten eran ere. ■

Bost urtetik gorakoentzat osatutako kontakizuna

Joxan Ormazabalek euskaratu duen istorioak gosez dagoen indiar tribu bat eta haiei begira dagoen ilargia ditu protagonista. Renada Mathieuk sortu du, eta Montserrat Cabok marraztu. Letra larriz eta marrazki handiz azaltzen dena hauxe da: sabela betetzeko zerbait behar-eta, hor doa indiar tribua ehizaldia egitera. Egun osoa pasa eta ezin ezer harra-patu ordea. Ilargia atera da, eta artean ezer

ehizatu gabe jarraitzen dute. Bat-batean, orein bat ikusi, azkonak bota, eta zer geratuko? Haietako bat ilargian sartuta geratu dela. ■

Ilargia lapurtu dute

Renada Mathieu

ELKAR

24 orrialde / 4,75 euro



ANDONI ARENAZA ALBIZUA

«Eliza beti egon da pentsamendu librearen kontra»

Zergatik kristautasunari kritika hau?


Gizakiok pentsamendu abstraktua eta mintzaira ditugu: dagoenaz eta ez dagoenaz pentsa eta hitz egin dezakegu, egotea nahiko genukeenaz... Gizakiak heriotzari dio beldurra, eternitate gosea du, askotan ez ditu bere existentziaren mugak onartu nahi eta “beste aldeaz” sinesteko joera du. Joera hori ez da berez kaltegarria; arazoa sortzen da —historia lekuko— joera horren gainean erlijio antolatua eta hierarkizatuak eraikitzen direnean; “egia absolutuen” jabeak dira eta “egia absolutu horiek” inposatzeko eskubidea dutela pentsatzen dute. Horra hor fanatismo, intolerantzia eta zapalketaren ernamuina. Ezjakintasuna. Eliza beti egon da pentsamendu librearen kontra, artalde analfabetoak hobeto irensten ditu eztabaidatu ezin diren egia sakratuak.

Artalde horren erdia emakumeok osatzen dugu. Nondik dator Elizak emakumea gutxiesteko duen joera?

Herri historiko gehientsuenak patriarkalak izan dira, judua ere bai. Kristautasuna judaismoaren adar bat da; judaismoaren liburu sakratua Bibliaren Itun Zaharra da, eta liburu horretan emakumea bigarren mailako pertsona gisa agertzen da: jainkoak Adamen saihets batetik sortu zuen eta Evak seduzitu zuen Adam sagarra jan zezaten. Aurreko horri kristautasunaren benetako egile intelektuala den Pauloren misoginia gehitu behar diogu, ondorengo filosofo kristau gehientsuenek jarraitu zutena. Elizak bekataria behar ditu, kontzientzia txarra duten menpeko sumisoak manipulatzeko, izutzeko, “salbatzeko”... eta haientzat plazer sexual zikin eta bekatiaren sinbolo nagusia emakumea da.

Kontzientzia txarra duten menpekoak izan beharra

Andoni Arenaza Historia eta Geografian lizentziatua da eta Bilboko Urretxindorra ikastolako filosofia irakaslea. Betidanik erakarrir du erlijioak eta, non bizi garen kontuan hartuta, kristautasunak bereziki. Esaten dutena esateko zertan oinarritzen diren jakin nahian, *Kristautasunari azterketa kritiko bat* liburua osatu du, Bibliatik hasita, jatorrizko bekatua, Jesus, Ama Birjina, Azken judizioa, infernua, erlijio politeistetan sinesmena dutenen aurkako erasoak, Inkisizioa eta abar aztertuz. Baita emakumeen aurka Elizak eraman duen bide suntsitzailea ere. Eta emakumearen egoerarekin lotuta dio, zenbait jende pentsa dezakeela Adam eta Evaren narrazioarena oso argudio ahula dela. Gauza bi nabarmendu nahi ditu egileak: batetik, XX. mendeko hasieran ere, kristau gehienek mundua eta gizakia



**Kristautasunari
azterketa kritiko
bat**

**Andoni Arenaza
Albizua**
GAIK

146 orrialde / 14 euro

Biblian agertzen den bezala sortu zirela sines-ten zutela; eta bestetik, XVII. mendean Pierre de Lancre inkisidoreak Lapurdiko 60 emakume sutan erre zituenean, argudio ikaragarri hau erabili zuela: euskaldunek sagardoa edaten zutela; zerez egiten da sagardoa? Evak jan zuen fruituaz. “Benetan barregarria emakume haiek bukaera hura izan ez balute”. ■

egileari galdezka